

HOR AL ZAUDE? / ¿ESTÁS AHÍ? (JAVIER DAULTE)

Apartamentu txiki bateko egongela. Hiru ate: sarrera, bainugela eta sukaldea. Kaxak nonahi. Zenbait altzari edonola jarrita. Patxi, 30 urteko gizona, modu informalean jantzita. Eserita dago, aulki huts bati arretaz begira. Ahalegin handia egiten du begiekin. Halako batean, zerbaitek asaldatzen du.

PATXI- Zer? Zer esan duzu? Zerbait esan duzu? Barkatu, ez dizut ulertu; ez... Leo... lei... leihoa? (*Alboetara begiratzen du*). A... atea? Isilunea. U... bu... Bufanda? Bufanda eman nahi didazu? (*Isilunea. Besoak mugitzen ditu*). Zuk ikusten nauzu? (*Isilunea*). Zerbait behar duzu? (*Isilunea*). Zerbait nahi duzu? (*Isilunea*). Ura? (*Isilunea*). Zukua? Zerena? Ea... Pixka bat desordenatuta dago dena... ez dakit egongo... Erosketa batzuk egin ditugu, baina... (*Isilunea. Badirudi zerbait entzun duela*). Barkatu? (*Isilunea. Isilunea*). Zukua, kaxakoa da, txiki horietakoa, ez da oso freskoa egongo: ez daukagu hozkailurik; baina, egia esan, hotz honekin... Hemen, estufa pare batekin... (*Kaxako zukua hartu ondoren "Gizonarengana" gerturatzen da*). Ikusten dut zure zera hori... (*"Eskua" seinalatu. Zukua mahai gainean utzi ondoren, atzerapausoa ematen du. Eta segidan, aurrerapausoa*). Eee... Nik irekiko dizut... (*Isilunea*). Barkatu? (*Isilunea*). Iruditu zait zerbait esan duzula... (*Isilunea*). Benetan ez didazu eman nahi... Bufanda da hori, ezta? (*Isilunea*).

Kanpoan hotza egiten du. Baina hemen giro atsegina dago... Bueno, nire gusturako behintzat; ez dakit zuk nola... (*Isilunea*). Noiztik zaude...? Betidanik izan zara...? (*Isilunea*). Hemen igual traban... Traba egiten al... Bakarrik egon nahi duzu? Bueno, nora joanik ere ez dago, bakarrik egoteko esan nahi dut. Komuna, edo sukaldea, eta ez da oso handia. Anek espazio handiak atsegin ditu. Bizkaitarra da, bueno, gurasoak ditu Bizkaitarrak, Bilbotarrak. Espazio handiak atsegin ditu. Etxe handiak. Beti esaten du espazio handietan askoz errazagoa dela... elkarki... konbibentzia. Hau ez da oso handia... Baina ez naiz kexatuko. Ez zait gustatzen kexaka ibiltzea. Ez... Zer? (*Isilunea. Patxi begira geratzen da, begiak okertuz. Zerbait mugitu edo erortzen da ustez Patxirekin hizketan ari den gizonaren aldean*) Argia? Sabaia? Min egiten dizu argiak? (*Isilunea. Zerbait bururatzen zaio bat-batean*). Idatzi nahi duzu?! Hori nahi duzu, edo...? Ze zuk, ba al dakizu...? Alegia, idazten badakizu, ezta? I-D-A-T-Z-I... Ze, orduan, errazagoa izango da. Hala behintzat... Itxaron... (*Zerbaiten bila hasten da kaxen artean*). Hemen nonbait behar du... Badakit hemen dela, ze nik gorde nuen... Badakizu? Azken bi urteetan lau aldiz aldatu naiz etxez? Bueno, ez. Egia esan, bost aldiz. Baina nahastu egiten naiz beti, bi alditan etxe berera aldatu nintzelako. Nahiko istorio konplikatua da eta orain ez... Izugarria da zenbat gauza eraman ditudan toki batetik bestera, eta batzuk aldatzeko momentuan bakarrik ukitu ditut. Arropa eta halakoak... Urtea joan urtea etorri, hor egon dira... Arropa asko etxez etxe eraman dut, baina ez dut sekula jantzi. Zenbat gauza pentsatzen diren etxez aldatzean... Ea ba... Hemen! Hemen dago!

(Franek kaxen artean bilatzen jarraitu du. Orain nahi zuena aurkitu du. Arbel magikoa da).

Sala de un pequeño departamento. Tres puertas. Una de entrada, una que conduce al baño y otra a la cocina. Cajas por todas partes. Algunos muebles dispuestos de cualquier manera. Fran, un hombre de poco más de 30 años, vestido de modo informal, está sentado, observando detenidamente una silla vacía. Hace visibles esfuerzos con los ojos. De pronto algo lo sobresalta.

FRAN — ¿Cómo? ¿Qué? ¿Cómo dijo? ¿Habló? Dijo algo ¿no? Perdón, no entendí; no... ¿La van... la ven... tana? (*Mira hacia los lados.*) ¿La pu... la puerta? (*Se corrige.*) No. La u... la bu... ¿La bufanda? ¿Me... me quiere dar la bufanda? (*Silencio. Mueve los brazos.*) Perdón. ¿Usted me ve a mí? (*Breve silencio.*) ¿Necesita algo? ¿Quiere algo? ¿Agua? ¿Un jugo? ¿Un jugo de...? Está todo un poco desordenado... no sé si... Hicimos unas compras, pero... (*Parece haber sentido la presencia del sujeto cerca de él. Se asusta.*) ¿Perdón? (*Intenta enfocar.*) ¿Dónde está ahora? (*Enfocándolo en el mismo sitio.*) Ah, está ahí. (*Intentando leer los labios del sujeto.*) ¿Eee? ¿E... lla? Ella debería estar por venir, por... (*Se interrumpe.*) Un jugo, sí. Bueno, no es jugo, es Tang. De... uva. (*Sale a la cocina.*) Creo que hay; no creo que esté frío porque todavía no hay heladera, pero... Ah, acá está. (*Aparece desde la cocina con una jarra y un vaso.*) Igual con la temperatura que hace... Acá la calefacción está bien... No sé usted... (*Sirve jugo en el vaso.. Intenta enfocar la mano del sujeto. Le acerca el vaso. Se espanta y deja caer todo.*) ¿Perdón? Creí que había dicho algo, que... ¿De verdad no quiere sacarse la...? ¿es una bufanda eso? (*Breve pausa.*)

Hace frío afuera, pero acá con la calefacción se está bien, decía. Quiero decir que para mí está bien; no sé usted... (*Breve pausa.*) ¿Hace mucho que usted está...? Quiero decir... No sé cómo decirlo... (*Breve pausa.*) Tal vez le molesta. Le molesta que y,,. ¿Quiere quedarse solo? Bueno, es que no hay donde ir, digo, para dejarlo solo; está el baño, la cocina, que no es muy grande. A Ana le gustan los espacios grandes; ella es italiana, bueno, de padres italianos, de Calabria. Le gustan los espacios grandes. Las casas grandes. Dice que la convivencia mejora en los espacios grandes. Bueno, esto no es grande; más bien es chico ¿no?, pero es lo que conseguimos... Aunque sea temporariamente... Yo creo que está bien. Yo no me quejo. No me gusta quejarme. No... (*Intenta enfocar.*) ¿Qué? (*Enfoca y trata de descifrar lo que el sujeto intenta decirle.*) ¿La luz? ¿El techo? ¿La luz le hace mal? (*De pronto tiene una idea.*) ¿Quiere escribir? Quizá le sea más... ¿Le parece □...? Eh... ¿usted... sabe? Quiero decir, escribir- sabe ¿no? Porque por ahí es más fácil. Una manera de... Espere... (*Empieza a buscar entre las cajas.*) Por acá creo que tenía... Sé que está porque la guardé; y estuve a punto de tirarla porque nunca... ¿Sabe que en los últimos dos años me mudé cuatro veces? Bueno, no, en realidad me mudé cinco veces, lo que pasa es que me confundo porque dos veces me mudé al mismo lugar, pero eso es una historia medio complicada que ahora no... Y bueno, me di cuenta de la cantidad de cosas que fui trasladando de un lugar a otro y que nunca más toqué, nada más que cuando hacía la mudanza. Ropa, cosas que... De años y años que están y no... Ropa que pasó de casa en casa y no usé nunca en el medio... Es gracioso. Es increíble la cantidad de cosas que uno piensa durante una mudanza. A ver... ¡Acá está, acá está! (*Fran ha seguido buscando entre las cajas. Ahora ha encontrado lo que quería. Se trata de una Pizarra Mágica.*)

